

Gaur aurkeztuko dute Yolanda Larreategiren "Zaharrak berri, euriak" liburua

I. A. Markina-Xemein.

Markina-Xemeingo Udalak, Euskara Zerbitzua eta Herri Bibliotekaren ekimenez, 2005 urtean antolatu zuen Peru Abarka literatur lehiaketan irabazle izan zen lanaren argitalpena aurkeztuko dute gaur eguerdian. Lehenengo edizio horretako irabazlea Yolanda Larreategi markina-xemeindarra izan zen ' Zaharrak berri, euriak ' lanarekin. Orduan jaso zuen sariaren barruan, lana formatu egoki batean argitara ematea zegoen. Eta jadanik bere lanaren argitalpenaren emaitza prest dagoenez, horixe da gaur aurkeztuko dena. 'Gero Euskal Liburuak' argitaletxearekin sinatu zuen akordioa Udalak liburu hori argitaratzeko eta Elena Odriozolaren irudiez ilustratuta dago.

Ekitaldia Markina-Xemeingo Udaletxeko Batzar aretoan izango da eguerdiko 12:30ean. Bertan izango dira idazlea bera, ilustratzailea eta argitaletxeko ordezkaria.

Markina-Xemeingo Udalak iaz jarri zuen martxan Peru Abarka literatur lehiaketa euskarazko literatur produkzioa bultzatu eta idazle gazteak sustatzeko helburuarekin